BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

2839

EBAZPENA, 2012ko maiatzaren 28koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, antzerki-produkziorako laguntzak emateko Balorazio Batzordeko bokalak izendatu eta batzorde horren osaera argitaratzeko dena.

Ikusi da Kulturako sailburuaren 2012ko apirilaren 25eko Agindua, hots, antzerki-produkziorako laguntzak emateko araudia ezartzen duena.

2012ko apirilaren 25eko Aginduaren 11. artikuluak dioenez, aipaturiko diru-laguntzak emateko balorazio-batzorde bat osatuko da eta batzorde horretako kideak Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen bidez izendatuko dela.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Antzerki-produkziorako laguntzak emateko osatuko den Balorazio Batzordeko bokalak izendatzea eta batzorde horren osaera argitaratzea. Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Lehendakaria: Mikel Toral López jauna, Kultura Sustatzeko zuzendaria.

Bokalak:

– Laura Landa Calvo anderea.

– Amaia Ibáñez Zalba anderea.

– Pedro Jose Ormazabal Artetxe jauna.

– Miriam Martín Prieto anderea.

– Carlos Morán Arostegui jauna.

– Francisco Javier Lopez de Landatxe jauna.

– Marta Monfort Ayestaran anderea.

Idazkaria: José Luis Ibarzabal Eguibar jauna, Kultura Saileko teknikaria.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitara dadila agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 28a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.